



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/10/26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 26/10/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko urriaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira eterri Irati Iglesias Pozo eta Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 26 de octubre de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Irati Iglesias Pozo y Puri Regidor Varela.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD6PVK.UaGn>

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Ordinaria

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2023/10/10ean egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

- 2023ko urriaren 17ra arte hartutako erabakien berri eman da.

3.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA GEHIGARRIA ONARTZEA 2023rako.

Estatuaren Aurrekontu Orokorreko buruzko 31/2022 Legearen 19.bi artikuluan jasotakoaren babesean, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 0,5eko igoera 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin.

Bigarrena.- Igoera horiek 2023ko urriko nominan ordaintzea.

4.- 2024rako ORDENANTZA FISKALAK.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak, 2023ko urriaren 16an egindako bileran, 2024rako ordenantza fiskalei buruzko diktamena eman zuen.

Guztiok ezaguturik diktamenaren eduki osoa, hitz egiteko txanda eman du Alkateak:

Josu Ezkurdia:

"Gure taldearen botoa kontrakoa izango da bi arrazoirengatik. Uste dugu ez dela unerik egokiena presio fiskala handitzeko; egungo egoera ekonomikoa ez da ona inflazioaren eta energiaren kostuaren igoeraren ondorioz. Era berean, aurreko legegintzaldian, gure gobernualdeak ahaleginak egin zituen zergak izozteko eta behar beharrezkoa igotzeko bakarrik. Badakigu, halaber, Udalaren egungo egoera ekonomikoa ez dela txarra: gerakin bat dago eta aurreko ekitaldia "0" zorpetze-mailarekin itxi zen; horri gehitu behar zaio, daukagun informazioaren arabera, datorren urtean % 7 handituko dela foru-funtsetik jasotzen den ekarpena, hau da, 200.000 euro gehiago. Horregatik guztiagatik, zergak izoztea eta inolako igoerarik ez aplikatzea proposatzen dugu".

Beste inork ez du parte hartu eta bozketa egin da.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako EH BILDUKO 6 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek aurka, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea 2024rako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean aurreikusitako moduan.

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Pleno Ordinaria

Bigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

5.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANORAKO PROPOSAMENA.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Taxi zerbitzurako ondorengo tarifik baimentzea 2024rako:

1. Tarifa *			2. Tarifa **		
Abisaria	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko	Abisaria	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko
4,2910	1,3442	25,6718	4,2910	2,1440	40,3558

(*) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta erkidegoko eta herriko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

Bigarrena.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzari ematea indarrean dauden tarifik erabaki honen arabera aldatzeko.

6.- KREDITUAK ALDATZEKO 12. ESPEDIENTEA (kreditu transferentzia).

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 12/2023 expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzentzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28. a) eta 29. artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 12/2023 expedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0600.421.335.10.01 2023	APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	69.545,17	1.000,00	68.545,17
GUZTIRA		69.545,17	1.000,00	68.545,17

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0500.480.431.00.01 2023	DIRU LAGUNTZA: BONOAK	25.000,00	1.000,00	26.000,00
GUZTIRA		25.000,00	1.000,00	26.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

7.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4/2023 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, Tokiko Garapenerako arlotik ikusi da 2023ko eranskinean jasotako aurreikuspenak aldatzeko beharra laguntza programa berri bat jasotzeko 7. LERRO ESTRATEGIKOAN-Sustapen Ekonomiko eta Soziala.

Proposamenak ikusita eta Lurralde eta Tokiko Garapena batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
 Pleno Pleno Ordinaria

Lehenengoa.- SUSTAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA 7. Ierro estrategikoan ondorengo dirulaguntza programa sartzea:

J) MERKATARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO #EUSKADIBONODENDA KONTSUMO BONOAK.

HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkatariak eta autonomoak (Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak zehaztu ditu zeintzuk diren programan sartzen diren negozioak).

HELBURUA: Udalerriko saltoki eta zerbitzu establezimenduetan kontsumoa sustatzea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako udalerrian dagoen eskaintza komertziala mantentzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.480.431.00.01

8.- EUSKADI BONO DENDA PROGRAMARI ATXIKITZEA.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- "EUSKADIBONODENDA 2023" programari atxikitzea. Programa hori Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta herritarren eskura dauden hiriko merkataritzajarduerarekin zerikusia duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen eskura jarritako deskontu-bonuen bidezko pizgarri- eta estimulu-sistema da.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzak eta EUDELek "EUSKADIBONODENDA 2023" programa garatzeko sinatutako jarduera-protokolo orokorrean eratorritako konpromisoak gure gain hartzea.

Hirugarrena.- Lankidetza-hitzarmena formalizatzea Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberarekin (Eusko Ganbera), programaren Gipuzkoako lurraldeko erakunde lagunzailea den eta laguntzak kudeatzeko eta banatzeko lanen arduraduna den aldetik.

Laugarrena.- 1.000 euroko gastua onartzea 0500.480.431.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura, Udal honek "EUSKADIBONODENDA 2023" programa finantzatzeko bideratzen duen diru-kopuruari dagokiona

Bosgarrena.- Alkateari ahalmena ematea hartutako erabakiak gauzatzeko behar diren agiri guztiak formalizatzeko.

9.- DIRULAGUNTZAK EMATEA MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO EDO NEGOZIOAK ESKUALDATZEKO 2023KO LAGUNTZEN PROGRAMAREN BARRUAN.

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Pleno Ordinaria

9.1.- KING ileapaindegi jarduerako titular berriak eskatutako dirulaguntza.

2023ko maiatzaren 12ko Alkate erabakiz, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza- edo zerbitzu-establezimendu berriak irekitzeko edo negozio bat eskualdatzeko laguntzen oinarriak onartu eta deialdia egin zen.

Horretarako ezarritako epearen barruan, Humberto de Jesus Arias Gutierrez jaunak laguntza eskatu du KING ile-apaindegia dagoen Eduardo Gorosarri plazako 1. zenbakiko etxabeko lokalaren alokairua ordaintzeko. Interesdunak bere gain hartu du jarduera horren titulartasuna 2023ko ekitaldian.

Horretarako tramitatutako expedientea ikusi eta aztertuta, non eman beharreko dirulaguntza proposamena jasotzen duen arloko teknikariak egindako txostena dagoen, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Humberto de Jesus Arias Gutierrez jaunari, KING ile-apaindegiaaren titular berria den aldetik, ondoren zehazten den laguntza ematea, ile-apaindegia dagoen Eduardo Gorosarri plazako 1. zenbakiko etxabeko lokalaren alokairua ordaintzeko:

- Lehenengo urtean, 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte: 150 €/hileko.
- Bigarren urtean, 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra arte: 100 €/hileko.

Bigarrena.- Deialdia arautzen duten oinarrien arabera, onuradunak honako hauek bete beharko ditu:

1. Jarduera egitea edota dirulaguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
2. Eskoriatzako Udalaren aurrean justifikatza dirulaguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla, bai eta ekintza horiek burutzeko baldintzak eta betekizunak betetzen direla ere.
3. Dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen ari direla egiazatzeko Udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.
4. Diruz lagundutako jarduera berengatik beste dirulaguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.
Beste dirulaguntza hori jasoko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio Udalari eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako diruaren erabilera justifikatu aurretik.
5. Zerga betebeharretan, Gizarte Segurantzarekikoetan eta Eskoriatzako Udalarekikoetan egunean egotea.
6. Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiaztagiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
7. Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
8. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.
9. Emandako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarrietako 6. artikuluan euskararen erabilerari buruz ezartzen diren betebeharrok betetzea (GAO, 102 zk., 2023/05/29koa).

10. Lokalaren jabetzari egindako ordainketaren agiriak hiru hilean behin aurkeztea. Agiriak aurkeztu ondoren, Udalak dirulaguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

Hirugarrena.- Lehen BI hilabeteko dirulaguntza jabeari alokairua ordaindu zaiola egiazatzeko dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da. Ondorengo dirulaguntzak hiru hilabetetik behin ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiazatzeko dokumentuak aurkeztu eta gero, eta zerga betebeharrok, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzaako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontatzen hasita.

Laugarrena.- Gastua onartzea eta 2023ko ekitaldiko hilekoei dagozkien ordainketak egiteko agintza (300 euro) indarrean dagoen aurrekontuko 055.481.431.00.01 partidaren kargura, eta 2024ko (1.700 euro) eta 2025eko (1.000 euro) hilabeteetako ordainketak dagozkien ekitaldietako aurrekontuen kargura.

9.2.- APAINDU ile-apaindegia jarduerako titular berriak eskatutako dirulaguntza.

2023ko maiatzaren 12ko Alkate erabakiz, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza- edo zerbitzu-establezimendu berriak irekitzeko edo negozio bat eskualdatzeko laguntzen oinarriak onartu eta deialdia egin zen.

Horretarako ezarritako epearen barruan, Ana Isabel Muñoz Aberasturi andreak lagunza esku du APAINDU ile-apaindegia dagoen San Juan kaleko 12. zenbakiko etxabeko lokalaren alokairua ordaintzeko. Interesdunak bere gain hartu du jarduera horren titulartasuna 2023ko ekitaldian.

Horretarako tramitatutako expedientea ikusi eta aztertuta, non eman beharreko dirulaguntza proposamena jasotzen duen arloko teknikariak egindako txostena dagoen, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ana Isabel Muñoz Aberasturi andreatzi, APAINDU ile-apaindegiaaren titular berria den aldetik, ondoren zehazten den lagunza ematea, ile-apaindegia dagoen San Juan kaleko 12. zenbakiko etxabeko lokalaren alokairua ordaintzeko:

- Lehenengo urtean, 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte: 120 €/hileko.
- Bigarren urtean, 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra arte: 100 €/hileko.

Bigarrena.- Deialdia arautzen duten oinarrien arabera, onuradunak honako hauek bete beharko ditu:

1. Jarduera egitea edota dirulaguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
2. Eskoriatzaako Udalaren aurrean justifikatzea dirulaguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla, bai eta ekintza horiek burutzeko baldintzak eta betekizunak betetzen direla ere.

3. Dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko Udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.
4. Diruz lagundutako jarduera berengatik beste dirulaguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.
Beste dirulaguntza hori jasoko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio Udalari eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako diruaren erabilera justifikatu aurretik.
5. Zerga betebeharretan, Gizarte Segurantzarekikoetan eta Eskoriatzako Udalarekikoetan egunean egotea.
6. Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiazttagiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
7. Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
8. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.
9. Emandako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarrietako 6. artikulan euskararen erabilerari buruz ezartzen diren betebeharra betetzea (GAO, 102 zk., 2023/05/29koa).
10. Lokalaren jabetzari egindako ordainketaren agiriak hiru hilean behin aurkeztea. Agiriak aurkezu ondoren, Udalak dirulaguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

Hirugarrena.- Lehen BI hilabeteko dirulaguntza jabeari alokairua ordaindu zaiola egiaztatzeko dokumentuak aurkezu ondoren ordainduko da. Ondorengo dirulaguntzak hiru hilabetetik behin ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiaztatzeko dokumentuak aurkezu eta gero, eta zerga betebeharra, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontatzen hasita.

Laugarrena.- Gastua onartzea eta 2023ko ekitaldiko hilekoei dagozkien ordainketak egiteko agintza (300 euro) indarrean dagoen aurrekontuko 055.481.431.00.01 partidaren kargura, eta 2024ko (1.700 euro) eta 2025eko (1.000 euro) hilabeteetako ordainketak dagozkien ekitaldietako aurrekontuen kargura.

10.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIORAKO DEIALDIA EGITEA.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez, aurretiaz izapidezta eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko expedientea onartzea. Kontratuari kalkulatutako balioa 230.101,26 euro urteko da (BEZA barne). Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 2 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 3 urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautu behar duten administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

HIRUGARRENA.- Espedientea aldez aurretik izapidezko baimena ematea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian

ezarritakoarekin bat etorri. Esleipena eteteko baldintza izango da hurrengo ekitaldian kontratu honetatik eratorritako betebeharrok finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa ez egotea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta lizitaziorako dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzailaren profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 26 eguneko epe barruan iragarkia EBAOra bidaltzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

11.- UDAL ADIERAZPENA EUSKARARI BURUZKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN EPAIEN AURREAN.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzeko 179/2019 Dekretuaren zati bat baliogabetzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak berriki emandako epaien aurrean, Udalbatzarrak, 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran, bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, ondoren transkribatzen den ADIERAZPENA onartu zuela:

1. Eskoriatzako Udalak berretsi egiten du ETEL-en defentsa, udal-autonomiaren eta toki-erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan. Legea ezinbestekoa da euskal udalek euskararekiko duten konpromisoa eta euskal udalerrian euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duten hurbiltasunetik abiatuta.
2. Eskoriatzako Udalak uste du epai berri hori **toki-autonomiaren aurkakoa dela**, eta hizkuntza arloko udal-eskumenen garapen osoa mugatzen duela.
3. Eskoriatzako Udalak bereziki larritzat jotzen du euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikuluak baliogabetzea. Funtsezko beste artikulu batzuk ere deuseztatzen dira, hala nola, kontratacio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen dutenak edo udal-jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-plangintza ahalbidetzen dutenak. Alderdi horiek eta beste batzuk funtsezkoak dira herritarrek beren hurbileko administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.
4. Udalek hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak ezin ezartzea, ez barneko ezta kanpoko mailan ere, oztopo da toki-erakundeen funtzionamenduan eta, are kezkagarriagoa, euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Kaltetuenak euskara gehien erabiltzen den eta ohiko hizkuntza den udalerriko herritarra dira.
5. Adostasun politiko eta instituzionalak eta euskal gizartearen elkarlanak, euskal hiztunen komunitatearen bultzada borondateagatik, euskararen bizitasuna indartzea ahalbidetu du gure herri eta hirietan. Eskoriatzako Udalak egungo egoera balioan jartzen du, estatuan eta Europaren hizkuntza koofizialen erabilera errazteko urratsak egiten ari baitira, eta, hori horrela, guzion artean eraikitzen joan den legeriaren bidez, hizkuntza-eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukera baita.



12.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiatzatzen dut.

ALDAKETA PROPOSAMENAK

ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

- **Ondorengo karga-motak igotzea.**

Hiri izaerakoa- GAINONTZEKO GUNEAK % 0,2350etik % 0,24111ra

Gainerakoa ez, indarrean dagoen mota Foru Aginduak baimendutako handiena delako.

- **3. artikuluan:**

Honako hau dioen lekuan:

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.

-Familia ugariko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiazatzen duen ziurtagiria.

Honako hau esatea:

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua.

- Familia ugariko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZa edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiazatzen duen ziurtagiria. Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko du hori, interesdunek egiaztapen hori egitearen aurka ez badaude. Aurka egonez gero, eskatutako likidazioak aurkeztu beharko dituzte.

**UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINeko ZERGA ORDAINARAZTEKO
ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

- Udal koefizientea: 2,1567tik 2,2ra igotzea.

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO
OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

- **3.1 artikuluan honakoa sartza:** Hobari bat baino aplika daitekeen kasuetan, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena aplikatuko da bakarrik.
- **3.1.4. artikuluan:**

Honako hau dioen lekuak:

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.

-Familia ugariko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiazatzen duen ziurtagiria.

Honako hau esatea:

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua.

- Familia ugariko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZa edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiazatzen duen ziurtagiria. Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko

du hori, interesdunek egiaztapen hori egitearen aurka ez badaude. Aurka egonez gero, eskatutako likidazioak aurkeztu beharko dituzte.

- **3.2.B artikulua.**

Honako hau dioen lekuau:

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Honako hau esatea:

% 33 edo handiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasuna mugikortasun mugatuarekin. Mugikortasun murriztutzat joko da minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzko urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren 4. artikuluko desgaitasunaren ebaluazioko "b" hizkian agertzen dena. Otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretuaren 25.1.b) artikuluak aipatzen duen desgaitasun-mailaren eta garraio kolektiboak erabiltzeko mugikortasun-zaitasunak izatearen zehaztapenaren artean eskatzen den harremana IV. eranskineko Jardueraren Gaitasunak/Mugak Ebaluatzeako Baremoa (BLA) aplikatuz finkatuko da.

4. eranskinean jasotzen den moduan, mugikortasun-eremuan lortutako mugaren ehunekoa % 25ekoa edo handiagoa bada, pertsonak mugikortasun murriztua eta garraio kolektiboak erabiltzeko mugikortasun zaitasunak dituela erabakiko da.

2) Minusbaliotasun maila % 65eko edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko 1) eta 2) hizkietan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztua dutenean 888/2022 Errege Dekretuak 4. Eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, ez zaie 14 zaldi fiskaleko muga aplikatuko ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

- **Kuotak % 2,6 igotzea (kuota altuena finkatuta dutenak izan ezik)**

HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINeko ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZALEA.

- Karga-tasari dagokionez:

KARGA MOTA

Sortze aldia	KARGA (%)
Urtebete baino txikiagoa	0
1 urte	2
2 urte	3
3 urte	4
4 urte	5
5 urte	6
6 urte	8
7 urte	12
8 urte	17
9 urte	21
10 urte	26
11 urte	26
12 urte	28
13 urte	30
14 urte	27
15 urte	24
16 urte	18
17 urte	15
18 urte	12
19 urte	9
20 urte edo gehiago	8

- **Foru Aldundiaren proposamena 7. artikuluari buruz:** Berridazketa koefizienteak automatikoki eguneratu daitezten.

7. artikula

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Pleno Ordinaria

Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogeい urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: sortzapenaren unean lurraldi kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

8. artikulua

Sortzapenaren unean lurraldi kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

a) Lurren eskualdaketan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datorekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.

Gertatzen bada kasuan kasuko lurraldi, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, udalak katastro balio hori finkatzen denean egingo du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, artikulu honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako baliotik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz kalkulatuko da.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan eta eskualdaketan —lurrazal eskubide erreale bat izan gabe ere—, artikulu honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketaren eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikiko diren solairuen azalera edo bolumenaren eta eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikulu honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak lurraldiaren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2. apartatuko a) paragrafoan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.

3. Balio gehikuntzaren sorreraldia gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraldiaren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sorreraldia zenbatekoa izan

den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sorreraldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.

49 artikulua

Sortzapenaren unean lurrik duen balioari (aurreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) balio gehikuntzaren sorreraldi bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko koefizientea aplikatuko zaio, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez.

Subjektu pasiboak eskaturik, zergaren foru arauaren 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituz, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

ERAIKUNTA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

- Mota: Indarrean daudenak mantendu
- 3. artikulua aldatzea, honela:

Honako hau dioen lekuan:

3. artikulua.- Hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu zerga-gaia, lizentzia ematea Udal honi badagokio, eta lizentzia hori eskuratuta izan edo ez.

Honako hau esatea:

3. artikulua.- Hirigintza lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu zerga-gaia, lizentzia ematea edo kontrol jarduera Udal honi badagokio, eta lizentzia hori eskuratuta izan edo ez.

- 5.3.3.10. artikulua aldatzea, honela:

Honako hau dioen lekuan:

5.3.3.10. % 90eko hobaria izango dute zergadunaren jabetzako etxebizitzan edo etxebizitza dagoen eraikinean egindako hobekuntza obregatik, obra horiek etxebizitzaren barrualdea termikoki isolatzeko edota fatxadak birgaitzeko baldin badira, betiere, birgaitze horretan fatxadak termikoki isolatzeko neurriak hartzen badira edota leihoak aldatzen badira A*** edo B*** energia-etiketa sailkapena duten berriengatik.

Honako hau esatea:

5.3.3.10. % 90eko hobaria izango dute zergadunaren jabetzako etxebizitzan edo etxebizitzaz dagoen eraikinean egindako hobekuntza obrengatik, obra horiek etxebizitzaren barrualdea termikoki isolatzeko edota fatxadak birgaitzeko baldin badira, betiere, birgaitze horretan fatxadak termikoki isolatzeko neurriak hartzen badira.

- **5.3.1.BIS artikula sartza:** Hobari bat baino gehiago aplika daitekeen kasuetan, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da bakarrik, eta, horretarako, obra amaierako datuak aztertuko dira

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK	BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA
---	--

1. ERANSKINA.- HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK

Honakoa sartza: Lizentzia luzatuz gero, eta eskaera egiten denean hasierako erabakian adierazitako epeak amaitu ez badira, ordaindu beharreko kuota hirigintzako lizentziagatiko tasaren % 50 izango da.

OBRA LIZENTZIA:

1.- Etxebizitzatarako lizentziak.....	Obra aurrekontuaren % 0,31
2.- Industria eta zerbitzutarako lizentziak.....	Obra aurrekontuaren % 0,31

3. ERANSKINA.- HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Honako hau dioen lekuan:

9.- Hirigintza lizentziak eskatzeko espedienteak, lizentzia ukatzen denean edo baimendutako obra ez egitea erabakitzen duenean interesdunak: Hirigintza lizentziaren tasaren % 50

Honako hau esatea:

9.- Hirigintza lizentziak eskatzeko espedienteak, lizentzia ukatzen denean edo interesdunak berariaz atzera egindakoan lizentzia eman edo ukatu aurretik: Hirigintza lizentziaren tasaren % 50

Tasa guztiak % 2,6 igotzea ondorengo salbuespenekin

1.- Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa. (1 eranskinaren arabera).

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Ordinaria

2.- Tasa udalak deitutako lanpostuetara aurkeztutakoei eman beharreko zerbitzuengatik. Indarrean dagoena mantentzen da.

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

Tasa guztiak % 2,6 igotzea ondorengo salbuespenekin

1.- Erabilera publikodun lurrazenbait materialen (merkantziak, eraikuntzarako materiala, obra-hondakinak, hesiak, puntalak, eskoratze tresnak, aldamioak eta antzerakoak) hartzeagatiko tasa.

Indarrean dagoena mantentzea, *hesiak, aldamioak, puntalak, eskoratze tresnak... izan ezik. Horietarako 3,13 €/m²/egunekotik 1,30 €/m²/egunekora jaistea proposatzen da.

PREZIO PUBLIKOA UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIK

- % 2,6 igotzea proposatzen da, aulkia izan ezik, euro 1 bakoitzeko.

- Ondorengoa kentzea:

Musika ekipoa.....

Taloak egiteko mahaia

Parrilla

Estufak, bakoitzeko

Interpretaritza maleta

- Honakoa gehitu: Karpak 10x5, bakoitza 100 €

ERANSKINA

KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA

KIROLDEGIKO TARIFAK 2024

	Hilabetekoa	Hiruhilekoa	Urtekoa
BANAKAKOA			
6-17 urte	11,70	18,37	71,21

**2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Ordinaria**

≥ 18 urte	17,92	40,65	124,72
Langabetuek (>3 hilabete)	17,34	22,77	-----
Ikasleek (25 urte arte)	17,34	22,77	90,56
Ezgaituek (>% 33a)	17,34	22,77	90,56
≥ 65 urte*	17,34	22,77	90,56
≥ 80 urte*	-----	-----	-----
Eskoriatzaako Kirol Elkartea		7,10	

FAMILIAKOA: 18 urtetik beherako seme-alabak, edo langabeziian edo ikasten dauden 25etik beherakoak sartzen dira. 6 urtetik beherakoek, baziak diren gurasoak badituzte, ez dute sarrerarik ordainduko.

Normala	28,46	50,92	169,74
Familia ugaria, bikoteko bat langabeziian (>3 hilabete), familia monoparentala edo 65 urtetik gorako bikoteak	25,36	41,92	135,79
Biak langabeziian (>3 hilabete)	16,87	27,69	-----
AURRE Matrikula	11,60	Hileko eta hiruhileko tarifa guztiak hasieran eta jarraipenik ez dagoenean (31 eguneko epea).	

* **≥65 eta ≥80 urtekoak:** Hileko eta hiruhileko abonuetan jubilatu tarifa onartuko da abonu denbora horretan 65 edo 80 urte betetzen baldin badira. Urteko abonuan onartuko dira ere +65 edo +80 bezala adin hori urte naturalean betetzen dituztenak.

EGUNeko SARRERRA	
6-17 urte	3,00
≥ 18 urte	6,00
Langabetuak eta ezgaituak	3,00
10 SARRERAKO BONOa	
≤ 17 urte	25,00
≥ 18 urte	50,00
100 SARRERAKO BONOa	
	320,00
BESTE BATZUK	
Karneta berriztatzea (narriadurarik izan ezik)	5,00

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
 PlenoPleno Ordinaria

ALOKAIRUAK (ordu bete)	Argi gabe	Argiarekin
Kirdegiko kantxa	30,00	35,00
Kirdegiko kantxa (egun osoa)		1.130,00
Kirdegiko kantxa (egun erdia)		670,00
Minifrontoia		9,00
Pilotalekuko kantxa	10,00	13,00
Pilotalekuko gimnasioa		31,00
Igerilekuko kale bat		103,00
Igerileku osoa		410,00

Orduka alokatutakoan, bazkide ez diren parte hartzaleek sarrera ordaindu beharko dute, bazkideen kopurua %80 a baino baxuagoa denean.

Alokatzekoan ordaindu beharreko fidantza:

Epe baterako alokairuak.- Ordenantza fiskaletan lokal horretarako ezarritako hilabete bateko alokairuaren prezioa aurreratuko da, alokatutako udal lokala erabiltzeko epea amaitutakoan itzuliko dena.

Unean uneko alokairuak.- Ordenantza fiskaletan lokal horrentzako ezarritako tarifaren %10 ordaindu beharko da.

Erreserbak kobratzeko modua eta baja eskaera

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
 PlenoPleno Ordinaria



Kobrantzak hilaren azkenean kargatuko dira erabiltzaileak emandako kontuan.

Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kirolegian. Alokautako instalazioa, aurrez baja eskatu gabe, ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.

Kirol ekintzen tarifak	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
	HILEKO TARIFAK	HILEKO TARIFAK
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	45,00	58,5
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	34,00	43,00
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	23,00	30,00
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 60'	23,00	30,00
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 45'	17,00	19,50
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 30'	11,50	15,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	39,00	52,00
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	31,50	41,00

Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	20,50	26,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 60'	20,50	26,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 45'	15,50	18,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 30'	10,25	13,50
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, 2 egun, 60'	38,00	50,00
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, egun bat, 60'	19,00	25,50
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, 2 egun, 45'	28,00	38,00
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, egun bat, 45'	14,50	19,50
Erorikoen prebentzia, K.O.I.: 2 egun, 60'	20,50	26,50
Erorikoen prebentzia, K.O.I.: 2 egun, 45'	15,50	20,50
Erorikoen prebentzia, K.O.I.: egun bat, 60'	10,25	13,50
Erorikoen prebentzia, K.O.I.: egun bat, 45'	8,00	11,30

Behar bereziak dituzten pertsonentzako gimnasia, 2 egun, 60'	20,50	26,50
Behar bereziak dituzten pertsonentzako gimnasia, 2 egun, 45'	15,50	20,50
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	39,00	52,00
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	31,50	41,00
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 60'	39,00	52,00
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 45'	31,50	41,00
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 60'	20,50	22,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 45'	15,50	18,50
Igeriketa umeak 2-4 urte, egun bat, 30'	11,50	14,50
Igeriketa umeak, 2 egun, 30'	23,00	30,00
Igeriketa umeak, egun bat, 60'	23,00	30,00
Igeriketa umeak, egun bat, 45'	17.50	22.50

1.- Plaza erreserbatuta geldituko da izen emate orria behar bezala beteta entregatutakoan.
Dokumentua posta elektronikoz bidali daiteke kiroldegia@eskoriaztza.eus helbidera.

2.- *Ikastarorako ordaindutako dirua bakar-bakarrik jarduera ez bada egiten itzuliko da.*

3.- *Behin talde bat martxan hasiz gero hiruhilekoren batean, ikastaroa ikasturte osoan emango da, betiere, jarduera horretarako ezarritako jende kopuruaren %80a bermatzen bada gutxienez. Kontuan izango dira ikastaroan parte hartzen dutenen adina, jarduera bera beste orduren batean egotea, taldeak erabili behar zuen ordutegian egon daitekeen eskaintza, zenbat falta den ikasturtea amaitzeko eta ikastaroa nori zuzenduta dagoen.*

4.- *Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegian.*

5.- *Alta hilaren lehenengo hamabostaldian eginez gero, ikastaroaren hilabete osoa kobratuko da. Aldiz, alta bigarren hamabostaldian eginez gero, hilabete erdia kobratuko da.*

6.- *Ikastaroetako tarifik ez dituzte aldaketarik izango kurtsoan zehar.*

HASTAPENAK	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2 saio (spininga, body tonoa, zumba, GAH, pilatesa, body balanzea...)	0	0
4 saio (pilatesa)	23,00	30,00

BEHERAPENAK

Ikastaroetan parte hartzen duten 6 urtetik beherako haurren hilabeteko kuota, beraien arduradunetako bat baziide bada, abonatuarena izango da.

Langabetuak %20ko deskontua izango dituzte ikastaro guztietan

Fitness – wellnesss ekintzetan, 2. ekintzatik aurrera: %50eko beherapena merkeenean (ekintzetako bat, gutxienez, 2 egunekoia izan behar da)

	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
5 egun, 5 ordu eguneko (6 – 12 urte)	38,00	43,50



9 egun, 4 ordu eguneko (13 – 16 urte)	62,00	76,00
--	-------	-------

* Anai-arreba bakoitzeko 6 €-ko beherapena

2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Pleno Ordinaria



1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 10 de octubre de 2023. .

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

- Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 17 de octubre de 2023.

3.-APROBACIÓN DE INCREMENTO RETRIBUTIVO ADICIONAL DE LOS EMPLEADO/AS MUNICIPALES PARA 2023.

Al amparo de lo contemplado en el artículo 19. Dos, de la Ley 31/2022 de Presupuestos Generales del Estado, y conformidad con el dictamen de la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, por unanimidad, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar, con efectos 1 de enero de 2023, un incremento retributivo adicional del 0,5 % respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2022, de las retribuciones de todo el personal al servicio de este Ayuntamiento.

Segundo: Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de octubre.

4.- ORDENANZAS FISCALES 2024.

La Comisión Informativa de Organización y Hacienda, en reunión celebrada el 16 de octubre de 2023, emitió dictamen sobre las Ordenanzas Fiscales para 2024.

Conocido por todos el contenido íntegro del dictamen, el alcalde abre el turno de intervenciones:

Josu Ezkurdia: “*El voto de nuestro grupo va a ser en contra por dos razones. Consideramos que no es el momento más adecuado para aumentar la presión fiscal, la situación económica actual no es favorable a consecuencia de la inflación y de la subida del costo de la energía. A su vez, nuestro equipo de gobierno en la anterior legislatura se esforzó en congelar los tributos y subir lo mínimo indispensable. Sabemos también que no es mala la situación económica actual del Ayuntamiento, hay un remanente y el ejercicio anterior se cerró con un nivel “0” de endeudamiento; a lo que hay que añadir que, de la información que disponemos, el año que viene se incrementará en un 7% la aportación que se recibe del fondo foral, lo que supone unos 200.000 euros más. Por todo esto planteamos congelar los tributos y no aplicar incremento alguno.*”

No se producen más intervenciones y se procede a la votación.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión informativa de Organización y Hacienda y el voto favorable de los 6 concejales presentes de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV y, el Pleno ACUERDA:

**2023/10/26
Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Ordinaria**

Primero: Aprobar inicialmente para 2024 la modificación de las ordenanzas fiscales en los términos previstos en el Anexo I.

Segundo: Someter a información pública por el plazo de 30 días hábiles los acuerdos adoptados a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

Tercero: Los acuerdos adoptados y las modificaciones de Ordenanzas y sus Anexos devengarán definitivos sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

5.- PROPUESTA DE TARIFAS DEL SERVICIO URBANO DE TAXI

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Autorizar para el año 2024 las siguientes tarifas de servicio de Taxi:

TARIFA 1*			TARIFA 2 **		
Bajada de bandera	Kilometro recorrido	Hora de espera	Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera
4,2910	1,3442	25,6718	4,2910	2,1440	40,3558

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas

